

Dodoa: umiliatua eta suntsitua

LONDRES, 1865. Lewis Carrollen *Alice's Adventures in Wonderland* (Aliceren abenturak lurralde miresgarrian) argitaratu zen. Nobelako pertsonaietako bat dodoa da; hirugarren atalean dodoak denek irabaziko duten lasterketa zentzugabea antolatzen du. Carrollek azaldu zuenez, dodoak egilea bera irudikatzen du. Idazlearen benetako izena Charles Lutwidge Dodgson zen, eta totela zenez, izena galdetzen ziotenean “Do-do-dodgson” botatzen omen zuen.

Garai hartan gehienek ez zekiten dodoa zer zen, eta Carrollen liburuaren arrakastari esker, alegiazko hegazti mitikotzat hartu zuten. Oker zeuden, baina ez erabat. Egia da ordurako dodorik ez zela existitzen, baina biz-pahiru mende lehenago, hegazti baldarra lasai bizi zen Maurizio uhartean.

Raphus cucullatus, Indiako Ozeanoko irlako espezie endemikoa, metro bat luze zen eta 13-25 kilo arteko pisua izan ohi zuen. Hego txikiak ez zioten hegan egiteko ahalmenik ematen, ezta beharrik ere. Maurizio nahi adina fruitu zeukan jateko eta moko luze sendoari esker kokoak hausteko ere gai zen. Mehatsurik ezean, arrautzak lurrean erruten zituen. Inguruneari ederki egokitu-ta bizi zen, gizakia Maurizioara iritsi zen arte.

Eboluzioa medio, Afrikako usoaren ondorengoari hegan egiten ahaztu zitzaion eta hegazti mantsoa ehizatzen oso erraza zen. Gizakientzat mauka ederra zirudien; 10-20 kilo haragi ahalegin handirik egin gabe. Baina dodoa ez zen horregatik desagertu, haren haragia zaila baitzen, eta dasta txarrekoa.

Gizakiek dodoen habitata aldatu zuten. Basoak suntsitu zituzten, eta espezie berriak ekarri: txerriak, maka-koak, txakurrak, katuak, arratoiak... Batetik, animalia berriek ekarritako gaixotasunek dodoen hilkortasuna handitu zuten, eta bestetik, ugalketan ere eragina izan zuten, dodoen habia babesgabei erasotzen baitzieten. Espeziearen berri 1574. urtean iritsi zen lehenengoz Europara. Azken alea 1662an ikusi omen zuten. Mende bakarrean desagerrarazi zuten gizakiek dodoa.



NATURAL HISTORY MUSEUM OF LONDON

Edwardsen dodoa, Roelant Saveryk 1620ko hamarkadaren amaieran margotutakoa. 1759an koadroa George Edwards ornitologoaren eskuetan zegoen, eta British Museumari ematea erabaki zuen; hortik datorkio izena artelanari.


Baina espeziea erabat suntsitu baino lehen, ederki umiliatu zuten. Portugaldarrak 1607an iritsi ziren irlara. Kokaleku iraunkorrak ezarri ez arren, badirudi hegazti baldarra bataiatzeko astia izan zutela. *Doudo* edo *doido* hitzak *ergela* esan nahi du portugesez. Portugaldarren ondoren, Herbehereetako konkistatzaileak iritsi ziren. *Dodoor* hitzak “alferrontzi” esan nahi du nederlanderaz. Alternatiba ez zen askoz atseginagoa: nederlanderrek *walghvogel* ere esan zioten, hau da, “indioilar okaztagarri”.

Dodo hitzaren jatorria azaltzeko teoria begirunetsua-goak badira. Batzuek diote nederlanderazko *dodaers* hitzetik datorrela; Herbehereetan hala esaten diote txilinporta arruntari. Baina bi espezieek ez dute antz handirik. Azkenik, hegaztiaren deiarekin lotzen duenik ere bada. Dodoak “doo-doo” egiten omen zuen, Carroll benetako abizena esaten ahalegintzen zenean bezalatsu. ■



Arrastoak

Cabanellasek frankismoa iragarri zuen



MIGUEL CABANELLAS (1872-1938) Espainiako armadako jenerala izan zen, eta 1936ko gerra piztuko zuen altxaldiaren buruzagi nagusietakoa. Altxatutako militarrek Francisco Franco haien buruzagi hautatu zutenean, jeneralak hitz premonitorio hauek bota zituen: “Ez dakizue zer egin duzuen, ez baituzue nik bezain ondo ezagu-

tzen; nik nire agindupean izan nuen Afrikako armadan (...) Zuek nahi duzuen bezala Espainia haren eskuetan uzten baduzue, berarena dela pentsatuko du, eta ez du utziko inork ordezkadezan, ez gerran, ez gerra amaitu ondoren, hil arte”. Cabanellas gerra amaitu baino lehen hil zen, zenbateraino asmatu zuen jakin gabe. ■